

LHKren txostena: EAeko lan-jaien egutegi ofizialari buruzko Dekretu-proiektua



LAN HARREMANEN KONTSEILUAREN TXOSTENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
2022 URTERAKO LAN JAIEN EGUTEGI OFIZIALA ONARTZEKO DEKRETU PROIEKTUARI
BURUZKOA

Aurrekariak

2021eko otsailaren 17an Kontseilu honen egoitzan Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak prestatutako Dekretu-proiektua sartu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022 urterako lan-jaien egutegi ofiziala onartzekoa.

Aipatutako Saileko Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzak testu hori bidali zuen Kontseilu honetara, Lan Harremanen Kontseiluari buruzko otsailaren 23ko 4/2012 Legearen 3.a artikulua xedatutakoa betez, Kontseiluak dagokion txostena egin dezan.

Gogoeta orokorrak

Dekretu-proiektu honek 2022 urterako Euskal Autonomia Erkidegoko lan-jaiak ezartzen ditu, hain zuzen ere, lan-jai horiek arautzen dituen uztailaren 28ko 2001/1983 Errege Dekretuan finkatutako jarraibideen markoan.

Aipatutako Errege Dekretuak Estatuaren eremuko lan-jaiak ezartzen ditu. Autonomia erkidegoek ezin alda ditzakete horietako batzuk. Beste batzuk, berriz, aldatu egin daitezke, eta dagokion autonomia erkidegoak tradizioz berezkoak dituen beste batzuez ordeztu.

2001/1983 Errege Dekretuak autonomia erkidegoei ematen dien aukeratzeko ahalmen hori modu honetara zehazten da:

a) Martxoaren 19a ala uztailaren 25a aukeratu ahal izatea.

b) Errege Dekretuko 45. artikulua lehen zenbakiko d) atalean aipatzen diren jaiak (Ostegun Santua, urtarrilaren 6ko Jaunaren Epifania, eta martxoaren 19ko San Jose edo uztailaren 25eko Santiago Apostolua) tradizioz berezkoak dituzten beste batzuez ordezte.

c) Astelehenera eramaten diren jai nazionalak autonomia erkidegoetako jaietzordezte; horrela gertatzen da egutegi ofizialean ezarritako jai igandean suertatzen denean.

LHKren txostena: EAEko lan-jaien egutegi ofizialari buruzko Dekretu-proiektua



Berariazko gogoetak

Dekretu-proiektuan ezartzen den eta, gero, txostena egin dezan, Lan Harremanen Kontseiluari bidaltzen zaion 2022rako lan-jaien egutegia egiteko aintzat hartu dira aipatutako Errege Dekretuan adierazitako parametroak eta parametro hauek eskaintzen dituzten aukerak.

Dekretu-proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoko 2022rako berariazko jaitzat hartzen ditu apirilaren 18a, Pazko Garizumako Astelehena, eta irailaren 6a, Juan Sebastián Elcanoren mundu biraren V. mendeurrena.

Jai autonomiko hauek ezartzeko erabiltzen diren jai nazionalak dira maiatzaren 1a, Lanaren Eguna, eta abenduaren 25a, Jaunaren Jaiotza, eta biak igandean suertatzen direnez, astelehenera pasako dira.

Era berean, Dekretu-proiektuan uztailaren 25eko Santiago Apostoluaren jaia aukeratu da, martxoaren 19ko San Jose jaiaren ordez.

Beraz, jai nazionalak autonomia erkidegoko jaiez ordeztzeko aukera erabili egiten da, 2001/1983 Errege Dekretuak administrazio autonomikoei ematen dien ahalmenaren barruan, txosten honetako gogoeta orokorretan azaldu denez.

Irizpena

Lan Harremanen Kontseiluaren Txostenen Batzordea 2021eko otsailaren 23an bildu da, 2022 urterako lan-jaien egutegia onartzeko Dekretu-proiektua aztertzeko.

Aipatutako bileran, Confedebek, CCOO eta UGTk izendatutako kideek adierazi dute ados daudela aztertutako dekretu proiektuaren testuarekin.

Beste alde batetik, LAB sindikatuaren ordezkariak adierazi du, aurreko urteetan esan izan duen bezala eta legezketasun arrunteko gaiak alde batera utzirik, EAEko egutegian ez liratekela jaitzat agertu behar Euskal Herriaren errealitateak arrotz dituen horiek; zehazki, urriaren 12ko Espainiako jai nazionala jaitzat agertzearen kontra dago. Bere ustez, gure erkidegoan lan-egutegi propioa adostu eta erabaki beharko litzateke, non jaiegunak eta ospatzeko arrazoiak Euskal Herriko errealitate kultural, sozial eta politikoarekin bat datozen.

Bilbo, 2021eko otsailaren 23a